



IGEentzako LAGUNTZA  
DOKUMENTUAK



## IGEaren jarduerak

Zeri eman behar diogu lehenetasuna? Beharren arabera, zenbaitetan festa bat antolatu beharko dugu, edo zerbait "folklorikorako" laguntza jakina eskaini, baina hezkuntza erabakiak hartzen diren tokian jarri behar dugu enfasia. Zenbaitetan, konpartsena egiteko edo indarrak bigarren mailako kontuetan agortzeko arriskua dugu -eskolaz kanpoko hainbat jarduera antolatzeak akitzen gaitu, hain zuzen ere-. Ez gaude bereziki egiteko (horretarako ere bai, noski), baizik eta gauzak egiten laguntzeko eskola antolaketak funtzionatzeko.

IGEaren jarduera guztiak ikastetxeak eskola kontseiluan onetsitako urteko plan orokorrean sartu behar ditugu. Modu berean, ebaluaketa bat sartuko dugu kurtso amaierako memorian.

- Antolatuko ditugun jarduera guztien hezkuntza helburuak eta hartuko ditugun neurriak parte hartu nahi duten ikasle nahiz familia guztientzat balio behar dutela argi izan.  
Ez gara geure buruaren ordezkari baizik eta talde osoarena.
- Auzoko, eskualdeko edo udalerriko errealitate zehatza ezagutu, ikastetxea ingurune jakinean dago; Gizarte Ongizateko Auzo Unitatea, Osasun Zentroa, kirol elkarteak, udal organismoak, aisialdi elkarteak aprobetxatzen, eta, horiekin, jarduerak koordinatzen saiatu.
- Jarduerekin familia guztiengana heltzen saiatu, gehiengoaren interesetara egokitu. Maiz, maila sozio-ekonomiko baxueneko familiak atzean geratzen zaizkigu, eta bereziki zaindu behar dugun alderdi bat da, gehien behar dutenak baitira. Barrutik sustatu beharra dugu. Irakasleek asko egin dezakete.
- Ikastetxean partehartze eraginkorra izateko informatuta, prestatuta eta elkartuta egon behar dugu. Horretarako, gure jarduera guztiek honako hiru alderdiak hartu beharko dituzte kontuan:

Gure ikastetxe zehatzetik kanpoko jardueretan parte hartzea (adibidez, Federazioak edo IGEEK antolaturikoak), beste gurasoekin bat, oso gomendagarria da. Gure arazoak erlatibizatzea lortzen dugu, kezka ugari konpartitzen ditugula ikusten dugu, bakarrik ez gaudenaren kontzientzia hartzen dugu, eta horrek aurrera jarraitzeko adorea ematen digu; gainera, besteen bizipenetatik asko ikas genezake.

IGEaren kide berriei arreta berezia eskaini behar diegu: iritsi berriei harrera ona egin, horiek motibatu, zereginak eman, kokatzen lagundu, hots, hezi.

Arin ikasi behar dugu, etapa motza baita.

Ateratzen garenok erakundeari azken zerbitzua egi behar diogu: ondo trebatutako norbait utzi gu ordezkatzeko..

- Jarduera zehatz eta laburretan inplikatu (gehiago kostatzen baitzaigu jarraitua eta luzea den zerbaitearako konprometitzea).
- "Jolastokiko lana" oso eraginkorra izan daiteke. Ordu asko igarotzen ditugu haur txikiekin jolasean ari direla, eta hori aprobetxa genezake gurasoei deitu eta kezkatzen gaituzten gauzez mintzatzeko.
- Ikastetxean dauden gutxiengo ordezkariek eta familia etorkinena biltzen saiatu, IGEaren eta gainerako familien arteko bitartekari gisa oso mesedegarri izan baitaiteke.
- Klaustroa eta eskola kontseilua familien partehartzea bultzatzeko zereginetan inplikatzeko lortu behar dugu. Askotan entzuten diegu, Departamentuko instantzia gorenei zein hezkuntzan adituak direnei eta irakasleei beraiei, zein garrantzitsua den "familiekin koordinatzea", baina praktikan IGEekin oso gutxi lan egiten dute helburu hori lortzeko, eta, zenbaitetan, geure erakundeari mesfidantzaz begiratzen diote fiskalizatzaileak edo etsaiak bagina bezala.



koordinaturikoak (Pentsa dezagun, adibidez, zeharkako gai guztietan).

Zuzendaritza taldeak (zuzendariari berari dagokion zeregina da hezkuntza elkarrearen talde guztien partehartzea sustatzea), klaustroak eta irakasle bakoitzak parte hartzean lagundu beharko dute. Oso komenigarria litzateke gurasoekin antolatzea haurrek lantzen ari dituzten jarduerekin loturiko jarduerak, haurrak dauden hezkuntza aldiarekin loturiko jarduerak, gela eta gurasoekin

## Informazio jarduerak

IGEko zuzendaritza batzordeak ikastetxe eta gurasoen arteko informazio bideak ezarri behar ditu, ahal duen bitartekoen bidez. Ikastetxe, lege, kurso hasierako argibide, eskola kontseiluaren funtzionamenduari buruzko informazioa, ikastetxeak eman behar digu. Federazioan ere bideratuko gaituzte.

Guraso guztiei garaiz iristea: ikasturte bakoitzeko helburuak, edo berehalakoa den besteren bat, eskola kontseiluaren jarduera, e.a.

## Hezkuntza jarduerak

Hezkuntza. Eraginkortasunez parte hartzeko prest egon behar dugu. Baina ez dezagun pentsa hezkuntza akademiko sendoa behar dugunik hasteko, gure zeregina gurasoena da, ez dugu zertan adituak izan behar, eta, gogoak baditugu, oso laster trebatuko gara. Baina, hori bai, funtzionamenduaren, gure zeregina zein den, eta hezkuntza sistemaren errealitatearen eta parte hartzen dugun hezkuntza etaparen gutxienezko ezagutza lortu behar dugu. Ordezkariek eskola kontseiluan dituzten funtzioak ezagutu beharko dituzte.

Modu berean, "gurasoen heziketa" deritzoguna gure lehenetarikoko bat izango da, erakunde garen heinean: hezkuntza irizpideetan sakontzeko jarduerak, haurrak dauden eboluzio etapa ezagutzekoak, hezkuntza etaparen helburuenak, helburu horiek lortzen doazen moduei buruzkoak, ikastetxearen funtzionamenduari buruzkoak, hezkuntzarekin loturiko gizarte arazoaren gogoetari buruzkoak, e.a.

Guraso guztiei animatzen diegu beren agendan hutsune bat bilatu eta hezi egiten gaituzten eta familiaren funtzionamendu egokia aberasten duten jarduera hauetara etortzera.

## Ordezkaritza jarduerak

- Eskola kontseiluan, gure ordezkarien bidez, zein bere batzordeetan parte hartu.
- Edo bestelako auzo edo udal batzordeetan.
- Aldizkako bilerak zuzendaritza taldearekin.
- Federazioan parte hartu.

## Eskolaz kanpoko jarduerak

Legeak aitortzen dizkigun hezkuntza jardueretan elkarlanean aritzeak suposatzen du gurasook izatea ikastetxeen ordutegia luzatu eta hezkuntza eskaintzaren osagarri diren jarduerak antolatzen dituztenak, eta maiz ontzat jotzen dugu hori. Guraso elkarte bat garen heinean, jardueraren hezigarrietan dugu parte hartzea eskolaz kanpoko deritzoten horien antolatze hutsa baino askoz ere zabalagoa dela argi eduki behar dugu.

Eskolaz kanpoko jarduerak hezkuntzari buruz dugun kontzeptuari erantzun behar diote, eta geure seme-alaben nortasunaren garapen orokor eta harmonikoa bilatu behar dute lehentasun gisa.

Bizitzeko moduak eta gizarte antolamenduak sekulako utilitarismoa dute ezaugarri, non jolaslekuak eta haurren arteko harremanak geroz eta gutxiago eta desegokiagoak baitira.

Horrek guztiak utzi ohi dien irtenbide bakarra telebista gehiegi ikustea eta bideo jolasekin eta izaera kontsumista eta pasiboko bestelako jarduerekin gehiegi ibiltzea da. Jarduera horiek, euren garapen beharrei ez erantzuteaz gain, garapen horretan zehar sortu zailtasunak enkistatzen laguntzen dute.

Tradizionalki, eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxeetan IGEek antolatu izan dituzte, eta, batez ere, bere gurasoen zain zeuden haurrak entreteinituta edukitzeko helburuaz edo hezkuntzarako behar osagarri baten moduan, lan mundura edo geroagoko ikasketei aurre egiteko abantaila gehiago izateko.

## Gurasoen parte hartzesa IGEaren jardueretan

IGEen kezka nagusietariko bat gainerako gurasoen arreta eta interesa erakartzeko modua eta ikastetxeko jardueretan partehartzea lortzean datza.

- Badakigu gutxi batzuk izango garela etengabe lan egingo dugunok. Horrek ez gaitu uzkurto behar; alderantziz, gure ustez lehenetasuna duten helburu horiek argi eta garbi zehaztu behar dugu, eta ahal duguna egin. Lehentasunak gure eskola testuinguruaren arabera ezarriko ditugu. Norbaitek beste jardueraren baten beharra iradokitzen duenean, "ideia berri" horrengatik interes handia erakutsi behar dugu, eta ideia iradoki duen pertsonak berak aurrera eramatea eta laguntzaileak bilatzea lortu behar dugu.
- Informazio on eta arinak duen garrantzia jadanik aipatu dugu. Zenbaitetan, jarduera baten arrakasta gaiaren interesari zein guraso hartzaileei jakinarazi, deitu edo kontsultatzeko dugun moduari zor zaie.
- Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan bereziki, haurtzaindegia antolatu gurasoekin egiten ditugun jarduera guztietarako.
- Urteko batzarra prestatu, gai zerrenda erakargarriekin (derrigorrezko estatutuez gain), egun eta ordu egokiek; ondo planifikatu alde aurretiko sentsibilizazio lanaren bidez.
- Gelako ordezkari" sare bat egiten saiatu (gela bakoitzeko ordezkari bat, hain zuzen ere), ikasturterako helburu zehatz batekin; horiek, hiru hilero bilera bat eduki genezake. Komenigarria litzateke IGEaren ordezkariaren bat joatea ikasturte hasieran deitzen den gelako informazio bilerara; irakasleekin (partehartzea sustatzen lagundu ahal eta behar bitute) batera, ordezkari bat izendatzen da.

- Begirale eta koordinatzaileek bilerak antolatu beharko lituzkete gurasoekin batera jarduera bakoitzari buruz jakinarazteko, objektibo zehatzak, metodologia, e.a. azalduz, eta aldizkako jarraitze eta azken ebaluaketa eginez.
- Geuk, gurasook, sustatutako jarduera guztiek ondokoa kontuan hartzea proposatzen dugu:
  - Nortasunaren garapen orokorra, auto-estimua positiboa eraikitzea azpimarratuz eta sozializazio prozesuei mesede eginez.
  - Aisialdirako heziketa. Haurrek aisialdiaz gozatzeko, sormen eta auto-errealizaziorako denboran bilakatuz.
  - Adierazpen eta komunikazio tekniken ikaskuntza, euren adin, interes eta gaitasunentzako egokiak.

Orokorrean, jarduera horiei eskaintzen zaien denbora ez da olgeta eta osagarri huts gisa jotzen ludikotik eta sozialetik abiatuta, euren nortasuna harmonikoki garatzeko oinarritzko alderdiak, baizik eta orokorrean gurasook horietatik etekinen bat izatearen zain gaude.

Normalean denbora-galera gisa jotzen dira objektiboki ebaluagarriak ez diren jarduerak. Haurrek jolas jardueretatik lortzen dituzten etekinak eta norberaren heziketaren errentagarritasuna ez dira hain errazak neurtzen, nahiz eta ezin dugun ukatu bizitzaren hainbat alderdietarako oinarritzko ezagutzak lortzen dituztela, baita, batez ere, nor bere burua eta gainerakoak behar bezala onartzeko ere.

Gure iritziz, jarduerak antolatzean lortu behar dugun helburu nagusia hurrei euren gaitasunak eta ahalmenak garatzeko jarduerak eskaintzea da. Horretarako leku egokiak eta behar bezala prestatu eta gaitutako langileak behar dira, ez bakarrik teknikoki, baizik eta oinarritzkoan: hurrekiko harremana, batetik, eta IGEaren hezkuntza irizpide bera izatea, bestetik.

Jarduerak antolatzeko moduari buruzko gogoeta ere egin beharra dago, enpresa bat ez garela eta ez garela izango aintzat hartuz; gure funtzioa garrantzitsuagoa da.

Gure aholkua jarduerak legalki kontratatuta egotea da, jarduera kontratatzen duten pertsonen edo enpresen datu fiskalak daramaten fakturak tartean egonik.

Haurrek jardueretara euren borondatez joan behar dute, kanpoko presiorik gabe.

Begiraleek ezinbesteko bi baldintza bildu behar dituzte:

- Euren diziplinaren teknikak behar bezala ezagutu.
- Hurren nortasun orokorraren eboluzio garapena ezagutu, eta talde dinamika eta didaktika ezberdinei buruzko ezagutzak izan. Beraz, begiraleei koordinatzaileek lagunduko diete gainbegiratze eta jarraitzearen bidez, zeinek IGEarekin harremana uneoro mantenduko baitute.